

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluko ordezkaritza eskuordetzeari buruzkoa

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskunderen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzen duten pertsona fisikoen izendapena berraztertu beharra dago.

Abenduaren 10eko 458/2013 Dekretuak ezartzen ditu Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendua; 3. artikulua xedatzen duenez, lurralde historikoetako hiru hiriburuetako alkateak kontseilu horretako kide dira.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk Tokiko Gobernu Batzarreko beste kideen esku utz ditzake, dekretu bidez. Beraz, hau

Xedatu dut

María Ángeles Gutiérrez Ondarza zinegotziari eskuordetzea Gasteizko Udalaren ordezkaritza titularra Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluan, eta Herritarren Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusi Javier Saéz Lanas izendatzea ordezko kide.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE